
BOSGARREN ZUTABEAREN HIPERPOLITIKA ETA HACKTIBISMOA

JOSÉ ANTONIO RECIO CUESTA

“Ukiezin eta materiagabe, adituak ez du arrastorik uzten; misteriotsua da, jainko baten antzera, entzunezina. Horrela mendean hartzen du etsaia”

Sun Tzu

Beste ezer baino lehen, eskertu egin nahi nuke CIBERGOLEMek bere bosgarren zutabearen proiektuan parte hartzeko egindako gonbidapena; inteligentzia kolektiboko proiektu bat da, eta bere barnean, bere muinean “hiperpolitika” esaten zaion horren esentzia garbia du. Izan ere, liluratu egin nau subjektu logikoen esku-hartze politikoaren aldeko emaitza positiboak lortzearen informatikako harren (troiatarren) gisan sistemaren barnean jarduteko ideia horrek.

Geldialditxo bat egin eta hiperpolitika hitzaren esanguraren inguruko halako gogoeta bat egitea komeni da. Peter Sloterdijk-entzat, honek asmatu zuen hitza, hiperpolitika azken gizakien politika da, eta ez du arrazoirik falta, zeren eta argi eta garbi baitago bilakaera historikoaren, zenbaiti lurperatzea interesatzen zaiola ematen badu ere hilik ez dagoen bilakaera historikoaren azken gizakiak garena. Ez da amaierara heldu, oraindik garatzen ari da, eta espermentatzen, praxia duelarik elikagai, ez teoria; eta hauxe da funtsezkoa jarduera ekintzailearen ikuspegitik. Modu erraz batean esango genukeen moduan, ibilian egiten da bidea, eta hiperpolitikak gutxien behar duena dogmak dira; hau ez da gauza berri bat, denbora asko da aktibismoa, asaldatzea, gizarte desobedientzia, aztarka egiteko eskubidea edo dena delakoa ezagutzen ditugula, ez ditu Sloterdijk-ek asmatu. Baina, nire ustez, kontuz ibili behar dugu, eta ez gure itxaropen guztiak maila editorialeko irabazi handien mendean jarri.

Informazioaren eta Jakintzaren Teknologia Berriak (IJTB) agertu eta garatu direla, hautsi egin dira espazio-denbora koordenatu klasikoak. Orain bi dimentsiotan bizi gara, errealean eta birtualean, eta bizitzeaz gain, bi dimentsiotan jarduten, pentsatzen, partekatzen, maitatzen, konspiratzen... dugu. IJTB-ek eta, bereziki, INTERNETek esparru berriak zabaldu dizkiote giza komunikazioari, baina baita giza ekintzari ere; izan ere, dagoeneko bada garaia ekintza errebindikatzeko, gizakiaren izatearen berezko zati gisa, eta gure bilakaeraren eta gure eguneroko bizimodu “absentearen” jabe izateko. Aktibismoa, hala politikoa nola soziala, autobabeserako mekanismo bat da, jarduera mikropolitiko bat.

Politikan duten eraginari dagokionez, IJTB-ek abian jarri dituzte “**gizarte zibil globala**” esaten zaiona, antolaketa modu berriak, hala nola gizarte mugimenduen sareak edo komunitate birtualak, eta ekintza modu berriak, **Netaktibismoa** edo **Aktibismoa** besteak beste. Hauek nazioz gaindiko gizarte zibil baten eraikuntzarantz jotzen dute. Komunitate birtual berri hauen garapenak eremu berriak zabaldu dizkio giza ekintzari; praktika berri horietako bat **Hacktibismoa** edo **Gizarte Desobedientzia Elektronikoa** da, hackingaren eta aktibismoaren bat egitea alegia. Hacktismoaren definizio on bat, Tim Jordan soziologia irakasleak emana izango genuke:

“Giza talde birtual baten zuzeneko ekintza, bizitza errealeko aktibismo ez bortitzaren osagarri eta luzagarria dena.”

Ekintza mota honen helburua halako kalte zehatz bat egitea da, eta kalte hau hainbat motatakoa izan daiteke, hala nola ekonomikoa, iritzi publikoaren aurrekoa, morala... Ekintzak “eserialdi birtualetatik” (*virtual sit-in*) eta eraso informatikoen bidez orriak blokeatzetik (gehien erabiltzen den eraso informatikoa DOS –Zerbitzuaren Degenerazioa / ZD - izenekoa da), web orrialde baten edukiak aldatzera (Cibergraffiti) irits daitezke.

CIBERGOLEMek proposatzen digun bosgarren zutabearen hiperpolitika estuki lotzen zaio Aktibismoari. Praktika honen zutabeetako bat **inteligentzia kolektiboa** da, eta osagarri ditu adabegi-lanen bidezko

esperimentazioa (E-TESTER proiektua, esate baterako), gonbidapen honek erakusten duen **kanporanzko zabaltzea**, eta **gatazkaren garapena** (gatazka da ekintzaile orok edaten duen inspirazio iturria). Hau da, pentsamolde heldu edo teoria bat lantzea, praxia jorratzen den aldi berean; ezaugarri hauek guztiek zuen/gure proiektua proiektu ziberkultural serio bihurtzen dute.

Eta esan genezake Hacktibismoa mugimenduen mugimendu bat dela (globalizazioaren aurkako mugimendua bezalaxe). Aktibismo mota honen ekintzarako jarraibideak **Tactical Media** Taktika eta estrategia bereizi behar ditugu. Hacktibismoak taktikaren logikari jarraitzen dio, ez strategiarenari, zeren eta bere helburua ez baita boterea konkistatzea eta bertan gauzatzea, baizik eta boterea zalantzan jartzea; beraz, “gerrilla” taktika dugu eginkizun honetarako egokiena, eta maila honetan garrantzi itzelekoa da “Komunikazioaren Gerrilla” (*Manual de guerrilla de la comunicación* a.f.r.i.k.a., G. A., Blisset, L., and Brünzels, S. 2000. Virus.) ; komunikazioaren gerrillak komunikazioaren beraren formak domeinu praktikatzat ulertzen ditu, boterearen egiturak erabiltzen ditu bosgarren zutabeko metodo baten bidez, haren zeinuak eta kodeak itxuragabetuz zein haiez jabetuz, eta honek galdera bat eragiten ditu: subertsiorik onena ez ote, suntsitu beharrean kodeak aldarazten dituena? (Roland Barthes)

-n jasotakoak dira; hau praktika jorrazteko modu bat da, lehenagoko errebindikazio mugimenduek zituzten estrategiez bestelakoa. Bere ekintza, lehen aipatu dudan moduan, esperimentala da, eta Tactical Media(TM) iragankorra da, bere jarduera bere baitan amaitzen da eta. TM-ek ez du boterea lortu nahi, ezen bere helburua botere horrek lagatzen dituen espazioak boterea bera zalantzan jartzeko baliatzea da. Beraz, TM bosgarren zutabearen ildotik ari da, berez, zeren eta berea baitu lehen aipatu dudan espiritu troiatar hori.

Hacktibismoak elikadura iturritzat duen beste esparruetako bat gizarte desobedientzia bera da. Kontu honetako aitzindari gisa, Critical Art Ensemble plataforma dugu. Hau artearen, teknologiaren, politika erradikalaren eta teoria kritikoaren arteko gurutzaketak esploratzen ari den artista eta ekintzaile kolektibo bat da. Horiek Gizarte Desobedientzia Elektronikoaren kontzeptua garatu dute, kaleko gizarte zibilaren eredutik abiatuta. Bere testuak ekarpen kritiko garrantzitsua dira, gizarte ordenaren autoritarismoaren eta boterearen ideologiaren aurkako eraso argudiatzeko; The Electronic Disturbance, Electronic Civil Disobedience, Flesh Machine eta Digital Resistance () argitaratu dituzten liburueta batak dira. Aipatu eredia **mehatxu sinbolikoaren** taktika garatuz sartu zuten lehen aldiz, web orrialdeen blokeoa edo eserialdi birtuala harturik abiapuntutzat. Ezen mehatxu sinbolikoa hacktibismoaren beste premisetako bat da; honek ekintza errealaurreko simulazioa proposatzen digu. Ekintzaile mota honek praktikara eramandako simulazioa Simulazioaren Teoriaren aurkakoa da, honek esaten baitigu *“simulatzeko ekintzak gero ukatuko den materiaren aurretiazko ezagutze bat eskatzen duela, desiratutako helburua iristeko hurrengo pausotzat”*. Simulazio mediaktibistak simulazio horri eusten dio, hiperrealitate (edo errealtate birtual) espazio bat sortuz; espazio hau espazio-denbora koordenatu tradizioaletatik kanpo dago. Beste era batez, errealtateak ordenagailuetako pantailetatik zehar ihes egiten duela esan genezake.

Baina, praktika hacktibista hiperpolitika ote? Egia esateko ez dakit, nahiz badirudien, ikusia ikusita, badela; badakit ordea beste gauza bat, bosgarren zutabearen ildotik doala, eta egungo botere harremanak zalantzan jartzeko pentsatua delarik esku-hartze politikorako lanabes bat da, mikro eskalako bada ere. Aktibismoak modu bertikalean ezarritako botere egituren kontra dihardu. Hau da, egungo korporazioetan nagusi den autoritarismoa errefusatzeko du. Nire ustez, egia esango dugu joera ekintzaileak behetik gorako eta lokaletik globalerako berrituratze eta berreraikitze etengabe bat izan nahi duela esaten badugu, hain zuzen aurre eginez goitik beherako egituratze globalistari, hots, gaur egun erakunde, alderdi politiko eta burosindikatuetatik ikusten ari garenari. Hacktibismoa eskala molekular edo mikropolitikoan garatzen da, intuizio batetik abiaturik, honakoa baita: *“Boterea ez da subjektuari kanpotik iristen zaion zerbait: daukagun, konkistatzen edo lortu nahi dugun zerbait. Boterea gu gauden erlazio unibertsoa da. Subjektua osatzen duten erlazioen multzoa”*. Beraz, denon artean desmuntatu egin behar ditugu boterea modu autoritarioan bereganatzen eta beren onerako erabiltzen duten botere harreman horiek. Eta nire ustez, esparru honen barnean mugitu beharko luke CIBERGOLEMek, desiratutako Ciberatenas horren zimenduak benetan eraiki ahal izateko.